

EUSKO LEGEBILTZARRA. Alderdien Legea salatzeko osoko bilkuratik alde egin zuten Batasuneko legebiltzarkideek

Arkauteko akordioak bere egin ditu Eusko Legebiltzarrak

EAJk, EAK, IUK eta PSEk alde bozkatu dute

Edurne Begiristain | GASTEIZ

Iragan maiatzaren 21ean EAE-ko Segurtasun Batzordeak sinatu zituen akordioak eta lege erreformak bere egin zituen atzo Eusko Legebiltzarrak. EAJ, EA eta EB-IUren ekimeenez eta PSE-EEren babesarekin onartu zituen Legebiltzarrak akordioak. PPk, berriz, kontra bozkatu zuen eta Legebiltzarrak Alderdien Legeari babes adieraztea eskatzen zuen gehitzeko zuzenketa aurkeztu zuen. Zuzenketak, ordea, PP eta PSE-EEren babes baina ez zuen erdietsi.

Batasuneko legebiltzarkideek, bestalde, ez zuten bozketan parte hartu, Alderdien Legea salatzeko aretotik alde egitea erabaki zutelako. Osoko bilkura utzi baino lehen, Arnaldo Otegi adierazi zuen Arkauteko Mahaiko akordioak «errepresiboak» direla eta ez dutela gatazka konponduko. «Espainiak ilegalak izatea erabaki arren, euskal herritarrentzat legalak» direla iritzi zion Otegi. Protesta gisa aretoa utziko zutela iragarri zuen orduan Otegi eta une horretan Batasuneko legebiltzarkideek *Faxismoari stop, Demokrazia Euskal Herriarentzat eta Autodeterminazio eskubidea* zioten kartelak erakutsi zituzten PPko eserlekuetakoei.

AKORDIOAK

Ertzaintza. Plantilla hazi eta Ertzaintzak Europako polizia foroetan esku hartzea.

Lege-aldaketak. Hautetsien segurtasuna bermatzeko, LOREG legea aldatuko da «terrorismoagatik» zigortuta daudenak hautes zerrendetan egon ez daitezen. Erregistro Publiko eta Hautes-Erroldak ere aldatuko dira, zinegotzien datuak ezkutu mantentzeko.

Egoitzen segurtasuna. Alderdi politikoen egoitzak babesteko segurtasun neurriak handituko dituzte.

Protestaren ostean, PP eta PSE «haserre» agertu ziren Atutxarekin, Otegi hitza kendu ez izanagatik.

EAJ eta PPren kritikak

Osoko bilkurako eztabaidan EAJk, EAK eta EB-IUK «positibotzat» jo zituzte Arkauteko Mahaiko akordioak. Jose Antonio Rubalkaba EAJko legebiltzarkideak PPri leporatu zion Segurtasun Batzordea «boikotatzen» sailatzea eta «tentsioa eta liskarra» bilatzea. Eudel eta Arkauteko akordioekin «elkar-

Rodolfo Ares eta Javier Balza, atzo Eusko Legebiltzarrean.

RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS



ESANAK

J. ANTONIO RUBALKABA
(EAJko legebiltzarkidea)

«Arkauteko eta Eudeleko akordioek elkarriketarako bideak ireki dituzte»

ARNALDO OTEGI
(Batasuneko bozeramailea)

«Espainiak ilegalak izatea erabaki arren, euskal herritarrentzat legalak gara»

CARLOS URKIO
(PPko legebiltzarkidea)

«ETAren aurkako borrokan neurri aktiboak eta pasiboak hartzea beharrezkoa da»

riketarako bideak irekitzen» direla iritzi zion Rubalkabak, eta bide horretan sartzeko eskatu zion PPri.

Carlos Urkijo PPko legebiltzarkideak iritzi zion atzo eztabaidatutako testua «hobetu» daitekeela, eta ETAren aurkako borrokan neurri «aktiboak eta pasiboak» erabiltzea beharrezkoa dela. Ildo horretan EAJri egotzi zion Alderdien Legea eta Batasuna politikoki bakartzeko proposamenak babestu ez izana. PSE-EEko ordezkari Victor Garcia Hidalgok Arkauteko

Mahaia «batasun demokratikoren» adibide gisa jarri zuen. ETA eta bere «inguruaren» kontrako borrokarako beharrezkotzat jo zuen batasun hori. Bestalde, EAKo legebiltzarkide Rafael Larreinaren aburuz, Se-

gurtasun Batzordeak erakutsi du alderdiek akordioak lortzeko «gaitasuna» dutela eta hori positiboki baloratu zuen. IUKo bozeramaile Antton Karrerak PPri eskatu zion ideologia eta segurtasuna ez «nahasteko».

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

ERREKTOREGOA
RECTORADO

AURREINSKRIPZIOA

1. epea: uztailaren 1etik 5era. Hautaprobetako eta Lanbide Heziketako ikasleak ikasturte honetako ohiko deialdikoak (baldin eta eskaera irakaskuntza ertaineko ikastetxean egin ez badute); 2002ko deialdia baino lehenagoko ikasleak; eta 25 urtetik gorakoak UPV/EHU sartzeko probak 2002ko deialdia baino lehenago gainditu zituzten ikasleak.

2. epea: irailaren 2tik 4ra. Ikasle tituludunak; 2. ziklotara sartu nahi dutenak, ikasturte honetako ohiko deialdikoak zein lehenagokoak; eta Hautaprobetako eta Lanbide Heziketako ikasleak, ezohiko deialdikoak, plaza hutsak izango dituzten ikasketetarako.

3. epea: urriaren 1etik 2ra. Plaza hutsak izango dituzten ikasketetarako aurreinskrizioa egiteko epe berezia.

TOKIAK

Arabako Campuseko Errektoreordetza

Izardui Komandantea, 2

01006 Gasteiz

Tfno.: 945 014301

Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza

Akademi Gestiorako bulegoa

Ignacio Maria Barriola Eraikina (Ikasgelategia)

Elhuyar plaza, 1

20018 Donostia

Tfno.: 943 018141

Ikasleen Atala

Sarbiderako bulegoa

I. Ikasgelategia, beheko solairua

Sarriena auzoa z/g

48940 Leioa (Bizkaia)

Tfno.: 94 6015555

ORDUTEGIA: 9.00etatik 13.00etara

Iragarki honen informazio osagarria INTERNETen bidez eskuratu ahal da, helbide

EAE-KO SEGURTASUN BATZORDEA

«Jazarpen biolentzia» aztergai

EAEko Legebiltzarrak Arkauteko Mahaiaren akordioak onartu ostean, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailburu Javier Balzak iragarri zuen datorren ostegunean bilduko dela berriro EAEko Segurtasun Batzordea. «Jazarpen biolentziaren» aurkako neurrien eztabaida izango da mahai gainean egongo den gai bakarra. Herrizaingo Sailaren nahia da jazarpen biolentziaren biktimei bideratutako laguntza programa bat adostea Espainiako Barne Ministerioarekin. Programa hori abuzturako prest izatea nahi du Balzak. Neurri «zehatz» horien helburua «mehatxatuta» dauden bizi-baldintzak

hobetzea dela jakinarazi zuen sailburuak. Haren arabera, ezinbestekoa da programa hori bi sailen arteko elkarlanaren bitartez aurrera ateratzea. Hortaz, Mariano Raxoi buru den Ministerioa datorren asteko bilerara gonbidatuta dagoela esan zuen Balzak. PPk orain arte izan duen «jarrera aldatzea» eta Arkauteko Mahaiaren bileran egotea espero duela adierazi zuen.

Bestalde, Batasunak ez beste alderdi politikoz guztiek atzo erabaki zuten Eusko Legebiltzarrako Giza Eskubideen Batzordearen baitan «terrorismoaren biktimen» egoera aztertzeke ponentzia eratzea. Ponentzia hori asko jota bi aste barru egongo da martxan. Bere helburua izango da Terrorismoaren Biktimen laguntzarako Zuzendaritzak egindako lanak eta Eusko Jaurlaritzak abian jar ditzakeen bestelako ekimenak «jarraitu eta aztertzea».